



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2023/11/25

SINATZAILEA

Lesakako Udaleko idazkaria / Secretaria del Ayuntamiento de Lesaka
MARIA JOSE LARRYOZ ARIZTEGUI
2023/11/27LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31730 Lesaka (Nafarroa)
NIF P3115200B
Telf. 949637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

NIF: P3115200B

SECRETARIA GENERAL

ALKATEAREN EBAZPENA, DEIALDIA ONESTEN DUENA ADMINISTRARI OFIZIALEN LANPOSTU HUTSAK MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZ LEKUALDATZEAREN BITARTEZ BETETZEKO.

Alkatearen 216/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko 103. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 26koa; urriaren 31ko 509/2022 Ebazpenak aldatua –2022ko 228. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, azaroaren 17koa–) onetsi da 2022rako lan publikoaren eskaintza, ezartzen dituen enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeari jarraikiz.

Osoko Bilkuran 2022ko azaroaren 16an hartutako erabaki baten bidez, toki erakunde hau partez atxikitzen zaio uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze-prozesuak gauzatzeko, Nafarroako Administrazio Publikoetan, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz).

Aipatutako 19/2022 Foru Legearen 10. Artikuluak hauxe dio:
-1. puntua: “1. Enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartutako lanpostuak barne-mugikortasuneko prozedura batean eskainiko dira, lekualdatze-lehiaketa bidez, eta hartan parte hartzen ahalko dute deialdiaren xedeko lanpostu berean izendapena duten enplegatu finkoek”

-7. puntua: “Lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko prozeduren ebazpena formalizatuko da egonkortze prozeduretan lanpostuak esleitu aurretik.”

Ondorioz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

- 1.) Deialdia onestea merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzaeren bitartez betetzeko ondorengo lanpostuak:
 - Lanpostua: Administrari-ofiziala (2 plaza)
 - Maila: C
 - Araubide juridikoa: Funtzionarioa.
 - Lanaldia: Osoa.
 - Destinoa: Lesakako Udala.
 - Beharrezko titulazioa: Batxilergoko titulua, Bigarren Mailako Lanbide Heziketako titulua, edo baliokideren bat izatea.
 - Nahitaezko hizkuntza: Euskaraz: C1 ahoz - C1 idatziz.
- 2.) Onestea lekualdatze-lehiaketaren oinarriak eta eranskinak.
- 3.) Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udalaren atarian argitaratzeko agindua ematea.



LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA AWZR UV2C E7YH Q9JP

Resolución Nº 526 de 25/11/2023 "Lekualdatzea-administrari ofizial lanpostu hutsak" - SEGRA 12390Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/> 1tik 1 orrialdea